

Nahia Aramburu Azpiazu

Fmaila • Aipamena

Kaixo irakurleok! Ni Nahia Aramburu Azpiazu naiz eta 2007ko abenduaren 27an jaio nintzen Beasainen. Murumendi ikastetxean ikasten dut. Bi ahizpen artean gazteena naiz, eta asko gozatu dugu txikitatik ipuin eta liburu artean. Honez gain, nere zaletasunak ugariak dira: dantza egitea, familia eta lagunekin mendira joatea, abestea, kirola egitea ... Sari hau nere familia, lagun eta irakasleei eskeini nahi diet.



IRATIREN ABENTURA MAGIKOA

Udaberriko egun eguzkitsu bat zen. Dena argi-argi zegoen. Zuhaitzak lore arrosez beterik zeuden eta ni nire ahizparekin oso gustura jolasten ari nintzen.

Oso egun polita zen eta terrazara atera ginen hango bistak ikusteko. Han geundela, nire ahizpa Nerearen lagun bat zegoela konturatu ginen. Irati izena zuen eta gu ikustean esan zigun:

- Ni mendira noa. Nahi al duzue nirekin etorri?

Eta guk zera esan genion:

- Eskerrik asko gonbidatzeagatik baina ezin dugu joan. Gaur gure aitonaren urtebetetzea da eta bazkaria dugu bere etxean.

Irati bere gurasoekin batera mendirantz abiatu zen txango dibertigarri baten ilusioz. Gu berriz jantzi eta aiton-amonen etxerantz abiatu ginen.

Aitona oso pozik jarri zen gu han ikusita (ez baitzuen espero). Lehengusuak ere han zeuden eta haiekin jolasten ari ginen bitartean, Iratik Nereari mezu bat bidali zion.

- "Zer moduz zuek?" (zioen mezuak)

Nerea erantzuna idazten hasi zen baina erantzuna idazten bukatu baino lehen Iratik beste mezu bat bidali zion:

- "Kobazulo baten barruan sartu gara eta mundu magiko baten barruan gaudela ematen du!" - jartzen zuen.

Eta Nereak harrituta, argazki bat bidaltzeko eskatu zion.

Iratik argazkia bidali zuen. Ikaragarria zen han ikusten zena!

Argazki horretan urrezko ibai bat zegoen eta ibai horretatik zilarrezko itsasontzi bat zihoan. Itsasontzi hura mundu magiko hartan ibiltzen zen eta bidaiatzen zuen bitartean mundu

magiko hura ondo ezagutzeko aukera zegoen. Animali arraroak ere ikusten ziren: batzuk kolore askotakoak, hiru begitakoak, sei begitakoak, hiru mokodun txoriak

Eta argazki harri begira zegoela Iratik beste mezu bat bidali zuen :

- Aitona eta amonaren etxetik ateratzen zarenean nahi baduzu etorri. Leku hau harrigarria eta polita da baina kontuz! kobazuloan sartzen zarenean ate bat aurkituko duzu. Ateak esango dizu orduan ,atea zeharkatu ahal izateko hitz magikoak esan behar dituzula. Adi ba! Hitz magikoak hauek dira: "ESKERRIK ASKO ATE MIRAGARRIA"

Harrituta geratu ginen Iratiren mezua irakurrita baina ezetz esan genion aitona-amonen etxean egin behar genuelako lo.

Orduan, Iratik esan zigun lasai egoteko, berdin zuela eta argazki asko bidaliko zizkigula.

Zoragarriak ziren Iratik bidalitako argazkiak eta bideoak. Bideo horietan, soinu ikaragarri politik entzuten ziren. hiru moko zituzten txori haiek abestutakoak.

Ilundu zuenean, Iratik eta bere gurasoek, etxera itzultzea erabaki zuten eta kobazulotik irteteko hitz magikoak esan zituzten : "ESKERRIK ASKO ATE MIRAGARRIA" Eta atea ireki egin zen.

Mendian behera joan ziren. Irati irrikan zegoen bizitako abentura kontatzeko, eta etxera iritsitakoan afaldu eta hortzak garbitu ondoren, Nereari deitu zion bere detaile guztiak kontatzeko.

Irati oso pozik joan zen ohera oso abentura zoragarria izan zuelako eta horrelako gertakizun magiko eta eder bat eduki zuelako.

Hurrengo egunean Iratiarekin geratu ginen. Mundu magiko horretara eramateko eskatu genion baina iritsitakoan eta hitz magikoak esandakoan mundu magikoa desagertuta zegoen.

Pena handia hartu genuen, baina nik hala ere, lo egiterakoan, mundu magikoan nengoela amestu nuen.